

# **AKORDATZEN**

**Bermeoko Institutuko Batxilergoko Lehen mailako ikasleek 2012. Urtean, Lander Garro eta Eider Rodriguezen gidaritzapean.**

## AZKENA

Gogoratzen dut, Hondarribiako portuan aititek melokotoi zatiak zituen iogurta ematen zidala meriendatzeko eta nik zatiz bete nituela kaleak, tu egiten nituelako.

Gogoratzen dut, lau urte nituela, jatetxe batean indaba kazuela bat eskatu nuela niretzako bakarrik eta denak jan nituenean, bertako kamareroak jarri zuen aurpegi mundiala.

Gogoratzen dut txikitari amak panpinak oparitzen zizkidala, baina azkenean nire amak jolasten zuela beraiekin, nik nahiago baintuen aitaren kolekzioko kotxeak.

Gogoratzen dut lanak egin eta gero, arratsaldero, ikusten nuela amarekin batera Disneyko pelikularen bat. Edo bestela “Oliver y Benji”ren abenturekin konformatzen nintzen.

Gogoratzen dut futboleko udako torneoetara joaten nintzenean, nire gurasoek futbol talde batean apuntatzea ez zutela nahi. Euren ustez, mutilentzako kriola zen eta ez zidaten utzi.

Gogoan ditut, txikitako margotzeko klaseko irakasleak nire gurasoekin izandako elkarrizketak. Esaten zidan ez nuela etorkizunik margozketan eta desapuntatu eta hurrengo urtean ikastolako marrazki lehiaketa irabazi nuen.

Gogoratzen dut, bizikleta berria estreinatzerara joan nintzenean Almirante eta frenoak gogorregi egoten ziren. Orduan, kotxera

joateko aldapa jaisten hasi nintzen eta ezin izan nuen frenatu eta horma baten kontra ez jotzeko, espinodun alabrearen kontra jo nuen eta eskegita gelditu nintzen, barrezka!

Gogoratzen dut, gurasoek neba txiki bat izango nuela esan zidatenean eta Iñigo izena jartzeko konbentzitu nituenean.

Gogoratzen dut LH6ko maisuaren hitzak “Mikel Garai” gelakidea hil zenean eta denak negarrez hasi ginenean: “Bizia aurrera doa eta bizitza horrelakoxea da, utzi negar egiteari!”.

Bost urte nituen, kaletik nindoala auto guztien markak esaten nituela gogoratzen naiz.

Zortzi urte nituenean, beldurraren etapa izan zen eta gauean argiarekin lo egin behar izaten nuen zeren eta bisaitxitzek agertuko zitzaizkidala gogoratzen naiz.

Hamar urte nituenean, aitak berarekin batera kotxea garajera sartzen utzi zidan beraren altzoan eserita.

Hamahiru urte nituenean, gogoratzen naiz nire lagunak edaten hasi zirela eta haiek zirikatuta egiten ninduten edaten ez nuelako.

Hamalau urte nituenean Sukarrietako jaietara joan nintzen lehenengo aldiz, erizainez moztortuta. Euri zaparrada bota zuen eta gu gona eta mahuka laburretan geunden.

Hamabost urte nituenean portura joan nintzen arrantzara eta txipiroi batek tinta guztia aurpegira bota zidan.

Hamasei urterekin, gogoratzen dut nire lagunekin hondartzan nengoela kaka egiteko gogoia izan eta uretara joan nintzela. Baina zorte txarra izan nuen eta entrenadorearen alboan irten zen kaka, eta arineketan urten nintzen uretatik berak ni ez ikusteko.

Akordatzen naiz zelan tronpekin jolasten genuen beti besteara apurtuz.

Gogoan dut nire aitak belauntziz eraman ninduen lehenengo aldia lema hartzen utzi ninduenean.

Gogoratzen naiz bizikletan gupil txikiak kendu nituenean eta nola jausi nintzen lehenengoko aldiz.

Gogoratzen naiz txikitan beti futbol partidetan irabazten genuenean eta gero txokolatina gozoak jaten genituenean

Gogoan dut txikitan nolako jolasaldiak eukitzen genituen pokemonekin eta ni onena nintzen.

Gogoratzen naiz gurasoek erregeak nortzuk ziren esan zidatenean Nola joan nintzen nire logelara shockeatuta.

Gogoan dut txikitan Nola jolasten nuen baserrian txakurrekin eta oiloekin nire poza libre izateagatik.

Gogoratzen dut Disneylandera joan nintzen eguna nire poza ikustean atrakzioak

Gogoratzen dut nire gurasoak dibortziatu zirenean ez nekiela zer zen eta ez nuela ezer berezirik sentitu.

Gogoan dut Logroñon geunden momentua, bizilagun batek larunbat goizero garrasika desafinatuz abesten zuela Rocio Durcalena: "Sombras y nada más entre tu vida y la mía...".

Akordatzen naiz eskumuturra apurtu nuen egunaz. Ospitalera eraman nindutela eta gero nire aita eta izeba joan egin zirela, ni bakarrik utzita, nire lehengusu txikiak zentimo bat irentsi zuelako.

Gogoan dut 5.mailan txiza soinean egin nuen eguna. Gustuko nuen mutila aurrean zegoen. Eta andereñoak ez zidanez komunera joaten utzi ba... bainilazko batidoa esplotatu zitzaidala esan nuen... komuneko negarrak gogoan ditut oraindik

Akordatzen naiz Bermeoko etxea estreinatu genuen egunean nire neba ez zegoela gurekin... amonaren etxean zegoen... pozik sentitu nintzen aita eta ama niretzat bakarrik izan zirelako.

Akordatzen naiz nire amonaren etxean lo egiten geratzea gustuko nuela... South Park izeneko marrazki bizidunak jartzen zizkidan... amona on bat sentiarazten zuen horrek... marrazki bizidunak bere iloba maitetxoarentzat.

Akordatzen naiz txertoen beldur neukanean, medikuak esaten zidanean ule baten ziztada bezalakoa zela eta ez zuela minik egiten. Hogei minutu egon ziren txertoa emateko.

Akordatzen naiz lehenengo aldia Bermeoko eskolan, beldurtia eta lotsatia nintzenean, ume guztiak nire izenaz galdetzen eta nik ez nuen piperrik ere ulertzen.

Akordatzen naiz lehenengo aldia igerilekuan, hondoraino joan nintzen, txarto pasatu nuen minutu horretan azkenean esku batek iletik harrapatu ninduen eta atera zitzaidan, nire osaba izan zen.

Akordatzen naiz nire ahizpa txikiaren ondoan sopa jaten egon nintzenean, barreka egon ginenean eta nire ahizpa sopa dena sudurretik bota zuela, gero niri tokatu zitzaidan nire gurasoak ere barreka hasi ziren.

Akordatzen naiz plastikozko pintza berdeari sua eman nuenean, urtu egiten zen eta nire anaiari erakusteko besoan ipini nion erre egin nion. Oraindik dauka marka.

Gogoratzen dut idarrak jaten hasi nintzenean, ez nituen gustuko, baina politak ziren.

Akordatzen naiz lehen aldiz kaka zapaldu nuenean, loteria erosi nuen segidan eta 100€ tokatu zitzaizkidan zapata berriak erosteko.

Gogoratzen dut futboleko bati burua apurtu nioenean neure porterian gol sartuteagatik.

Gogoratzen dut Gadafi lehen biderrez ikusi nuenean oso polita zen eta beti jaten zuen neure hamaiketakoa.

Gogoratzen dut lehen aldiz kebab jan nuenean ez zitzaidan gustatu eta gau osoa botaka igaro nuen ospitalean.

Akordatzen naiz zenbakiak ikasi nituenean baina ez nekien ordena 4 1 5 6 2... egun osoa leloarena egiten.

Gogoratzen naiz ilea lehen aldiz moztu zidatenean, patilla bat bestea baino luzeagoa zen.

Akordatzen naiz bizikletatik erori nintzenean, burua apurtu nuen.

Akordatzen naiz idazten ikasi nuenean, etxeko armairuan idatzi nuen.

Akordatzen naiz lehen aldiz teletubiak ikusi nituenean, haiekin dantzatzen nuen.

Akordatzen naiz kortinak erre nituenean, ia etxetik bota ninduten.

Akordatzen naiz nire lagun guztiek portuan igeri egiten zutenean nik izan ezik, arrainek beldurra ematen zidatelako.

Akordatzen naiz Leonera joan nintzeneko lehen aldian bertoko jendeak euskaldunak izateagatik E.T.A kideak ginela esaten zutenean.

Akordatzen naiz ingeleseko klase partikularretan Itsaso ezagutu nuenean, ez nuen uste konfiantza piloak eukiko genuenik urte gutxitan.

Akordatzen naiz nire osabak izan zuen pazientzia niri bizikletaz ibiltzen irakatsi zidanean.

Akordatzen naiz institutura joan nintzen lehenengo egunean pasatu nuen lotsa ez nituelako nire gelako neskak ezagutzen, oso gogorra izan zen eta bakarrik eseri nintzen ikasgelan.

Akordatzen naiz nire lagun baten amona, zeinak egunero ekartzen zizkigun galletak, hil zen eguna, negar egin genuen nahiz gure amona ez izan.

Akordatzen naiz klasean kaka mokordoko punta irten zitzaidan eguna, komuneko papera hartzerantz nihoala.

Akordatzen naiz nire amonaren katuak kumeak izan zituen egunaz.

Akordatzen naiz eskolan lagunekin futbol torneoaren finala galdu genuen eguna.

Akordatzen naiz gazte bat bere mugikorrarekin etorri zen eguna guri nire lehenengo bideo pornoa erakutziz eta esan genuela: Qué asco. Orain ez didate nazkarik ematen.

Akordatzen naiz Lameran txakur segika hasi zitzaidala eta Lamera guztiari buelta eman niola korrika aitarengana iritsi arte.

Akordatzen naiz lehengusuarekin baserrian txinbera hartuta jardinan ipintzen ziren txoriei tiroka pasatzen genituen arratsalde zoragarriak, Baina beti ihes egiten zuten.

Akordatzen naiz txikitan Lameran zegoen iturrian azpian sartu nintzela, amonak etxera eraman arropak aldatu eta kalera berriro joaterakoan berdina egin nuela.

Akordatzen naiz aitarekin San Mamesen Athleticeko lehen garaipena ikusi nuenean.

Akordatzen naiz txikitan nire aiten kuadrilakoek, kontenedore batean sartu nindutela buruz, eta ni barrezka ari nintzela.

Gogoratzen naiz 5 urterekin Xabatek bultzatu ninduen eta eskua apurtu nuenean.

Gogoratzen naiz futboleko lehen denporaldian pitxitxi izan nintzela.

Gogoratzen naiz PIN-era joaten nintzen bakoitzean arrain bat ekartzen nuela etxera.

Gogoratzen naiz bizikletari atzeko gurpilak kendu nizekion lehen aldian jausi eta sudurretik odoletan hasi nintzela.

Gogoratzen naiz lagunaren artetik lehenengoa izan nintzela mangito barik igeri egiten ikasi zuena.

Gogoratzen naiz Athleticeko oso zaila zeukan kopako finalera iristea. Sevillaren aurka eta irabazi egin zuen eta finalera joan zen.

Gogoratzen naiz nire amonak txitak erosten zizkidala eta nik balkoitik botatzen nituela.

Gogoratzen naiz zoratuta nengoenean maisu bati jo niola eta apurtu niola.

Gogoratzen naiz neska batek zaplasteko ederra eman zidala.

Gogoratzen naiz mendira joan ginenean txakur batet kosk egin zidala.

Gogoratzen dut nire lehen zigarroa, eztulka egin genuen.

Gogoratzen dut nire lehen futbol partidua: 2-1 irabazi genuen eta gu baino handiagoak ziren.

Gogoratzen dut nire lehen neskalguna.

Gogoratzen dut nire lehen gola Zazpi Landaren kontra izan zen. Zelai osoa korrikan egin nuen gola ospatzeko.

Gogoratzen dut nire lehen musua 11 urte nituenen espero nuena baino gutxiago izan zen.

Gogoratzen dut nire lehen suspensoa 11 urterekin mateko ikasgai.

Gogoratzen dut nire lehen lapurketa txinoetan izan zen eta oso urduri jarri nintzen.

Gogoratzen dut nire lehen mozkorra 13 urterekin izan zen eta aitak lagundu egin behar izan zidan, gero bi zaplasteko eman zizikidan.

Gogoratzen dut nire lehen kuadrila klaseko jendearekin.

Gogoratzen dut nire lehen sexu ukimenak 14 urterekin izan ziren eta oso esperientzia ona izan zen.

Gogoratzen dut herrialdez aldatu nintzenez: Errumaniatik Bermeora izan zenez 9 urterekin.

Gogoratzen dut nire lehen liskarra 13 urte nituen, neska bategatik izan zen.

Gogoratzen dut pubiseko lehen ileak hazi zitzaizkidanean. Oso pozik jarri nintzen nagusia sentitzen nintzelako.

Akordatzen naiz txikitan toboganetik erorita ezkerreko besoa apurtu nuenean.

Akordatzen naiz neure gurasoak etxea aldatu nahi zutenean eta nik negar egin nuenean.

Akordatzen naiz nire lehen futbol zapatilak erosi nituenen: nik Adidasak nahi nituen baina Jomak erosi zizkidaten gurasoek.

Akordatzen naiz irakurtzen ikasi nuenean eta beti irakurtzen ibiltzen nintzenez.

Akordatzen naiz lehengo biderrez arraunean ibili nintzenez.

Akordatzen naiz txikitan burua igiri nebanean.

Akordatzen naiz nire lehen gola futbolean, belaunarekin sartun neban eta partida irabazi genuenean.

Akordatzen naiz idazten ikasi nebanean eta beti egoten nintzen deseatzin zeozer idazteko.

Akordatzen naiz lehen biderrez buruhandiak ikusi nituenean, izututa eta negarrez ibili nininela.

Gogoan dut, txikitan lagun baten etxean txisa egin nuenean, izugarritzko lotsa pasatu nuen.

Gogoan dut, nire lagunekin Sukarrietara egindako txangoak eta bertan biluzik jartzen ginenean hordartza erdian gauez.

Gogoan dut, lehen aldiz txirrinduan erori nintzenean, eta ospitalera joan behar izan nuela zorabiatuta nengoelako.

Akordatzen naiz, etxe abandonatu batean sartu nintzenean lagunekin eta ertzainak harrapatu gintuztenean izen abizenak hartzeko.

Akordatzen naiz, lehenengo jaietaz eta nire lehenengo botakadetaz.

Akordatzen naiz, Mundakako kanpiñera joan ginenean Bilbora eskapada egin genuenean eta ama batek harrapatu gintuenean.

Akordatzen naiz, nire lehengo sexu harremanak izan nituenean

Gogoratzen naiz, nire amak, zapatu goizetan txokolatea egiten zidala eta egun batean txokolatea ilera jausi zitzaidala.

Gogoratzen naiz, zapatu gauak nire mutilarekin zerura begira pasatzen genituenean eta gau batean izar iheskor bat ikusi genuenean.

Gogoratzen naiz, nire lehenengo azterketa gainditu ez nuenean eta amak hilabete bat etxetik irten barik utzi nintzenez.

Gogoratzen naiz, Briñasera joan nintzenean, nire lehenengo gaupasak bizi nituen.

Gogoratzen naiz, zapatu arratsaldeak filmak ikusten pasatzen nituenean mutil lagunak utzi ninduelako.

Gogoratzen dut nire bizikletari atzeko gurrupilak kendu nizkionean: aldatz behera joatean horma baten kontra jo nuen.

Gogoratzen dut igeri egiten ikasi nuenean. Deskordinatuta egiten nuen, nahi nuen bakarra ez ondoratzea izaten zen.

Gogoratzen dut egun batean Santa Katalinara joan nintzenean lagun batekin arlote batek atzetik jarraitu ninduela txerto batekin.

Gogoratzen dut egun batean futbol zelai batean jolasten ari ginela ertzainak etorri zirela zelaiaren jabearekin salatu egin zigutela esaten, debekatuta zegoelako bertan jolastea.

Gogoratzen dut lagunekin galtzontzilotan bainatu ginela hondartzan goizaldeko 5etan.

Akordatzen naiz nire lehenengo hitza “kaka” izan zela.

Oroitzen dut mutil baten erruz negar egin nuenean, amak esan zidala negarrik ez egiteko mutil inozo batengatik.

Gogoratzen dut jaio nintzenean medikuak berezitasun bat nuela esan zidana.

Akordatzen naiz nire amak egin zidan lehen errieta txakur bati buztenetik tira egiteagatik.

Gogoratzen dut lehenengo garaua irten zitzaidanean.

Gogoratzen dut eskiatzen tibia apurtu nuenean.

Gogoratzen dut etxe misteriotsu eta baztertu batera sartu nintzenean.

Gogoratzen dut nire arreba igerileku batetik salbatu nuenean (flotagailu batek eztanda egin zuelako).

Gogoratzen dut etxean bakarrik gelditu nintzenean eta beldur sentitu nuela.

Gogoratzen dut hegazkin bidai batetan hilko nintzela sentitu nuela.

Gogoratzen dut auzokoaren garajeko atea apurtu nuenean aitaren autoarekin.

Gogoratzen dut etxeko salitako kortinak ia erre nituenean (plastikozko panpina lanparan uzteagatik).

Gogoratzen dut operatu aurretik anestesia jartzeko momentua.

Gogoratzen dut amak inurriak hiltzeko esan zigunean eta paperezko hegazkin batean sartu eta auzokoaren balkoian erori zirela.

Oroitzen dut nire amari arratoi bat eramanean nionean “ratoncito Perez” zela esanez.

Gogoratzen naiz 6 urte nituenean nire andereñoari titiak ikutu nizkiola.

Gogoratzen naiz nire amonak txitak erosten zizkidala eta nik balkoitik botatzen nituela.

Akordatzen naiz nire lehenengo aldia ibiltzen hasi nintzela sekulako golpea jaso nuen ez nituelako eskuak jarri.

Gogoratzen dut txikitan asko gustatzen zitzaidan bizikletaz ibiltzea herrian zehar. Bizikleta morea oparitu zidaten nire urtebetetze egunean.

Gogoratzen dut igeriketan oso txarra nintzela: beldurra nuen itsas hondotik zeozer irtengo zitzaidala.



Akordatzen naiz lagunekin Laida hondartzara joan ginela. Gurasoak guregana etorri behar ziren itsasontziz gure bila ez genuelako zerbitzurik bueltatzeko.

Akordatzen naiz txikitan jostailuko motor batekin aldatz bat jaisten nengoela. Harri batzuetatik pasatu eta aurpegi guztia itzi nuen hantxe. Aurpegi guztia zauriz beteta nuen.

Akordatzen naiz nire lehengo pausoak eman nituenean, eperdiz jeusi nintzela, a zelako mina!

Akordatzen naiz Londresera oporretan joan nintzenean, supermerkatu batean galdu nintzela. Nire ama zoro moduan ni bilatzen zegoen bitartean, ni dendariarekin hizketan eta margozten nengoen inolako kezka gabe.

Gogoratzen dut 4 urte nituela supermerkatu batean, arropak garbitzeko jaboia hartu eta burutik behera bota nuela.

Gogoratzen dut txikitan eskolara joan behar nuenean, ate aurrean kristolako folloiak montatzen nituela nire ama nirekin barrura sartzeko.

Akordatzen naiz nire lehen penkoa atera nuenean, ez nuela etxera joan nahi eta Lameratik bueltak ematen egon nintzela ordu erdi. Etxera heldu nintzenean ez zidaren zigortu, a ze sustoa!

Gogoan dut, amonaren etxera joaten nintzenean eta txakurrak gainean salto egiten ninduenean, urteak pasatu ahala, jada ez nau lurrera botatzen.

Gogoan dut, udan ahizpa txikiarekin talara igotzen ginenean, berak patinak eramaten zituen eta ez zuen printsesa koroa burutik inoiz kentzen.

Gogoan ditut, zazpi urterekin lagunaren etxean lo egitera gelditzen nintzeneko asteburuak eta bere ohepean eskutatzen ginenekoak nire ama nire bila zetorrenean.

Gogoan dut, nire gustuko lehen liburua irakurri nuenean, ikaraturik nengoen baina irakurtzen jarraitu nahi nuen.

Gogoan dut, nire lehenengo gitarra eskola, osabak oparitutako gitarra neraman eta oso lotsatuta nengoen arren, asko gustatu zitzaidan.

Gogoan dut, nire lagunekin eginiko lehen kanpina, gauen animalia bat ibili zitzaigun inguruan, baina norbait zurrungaka zebilen eta animalia hura ikaratu zuen.

Gogoan dut, kanpin hartan geundela eta sukaldean hari ginela. Nire lagunetako batek, suaren gainean patata tortilari buelta eman zion eta suak atera zuen garra izugarrikoa zenez, denak ohiuka hasi ginen.

Gogoan dut uda batean, amonaren etxean nire lehengusuekin geundela, bideokamera hartu eta bideoklipa grabatzen hasi ginenekoa. Horrela konturatu nintzen, kamera izan nahi nuela.

Gogoan dut, kitarra klaseak utzi eta baxua jotzen hasi nintzenekoa. Bermeoko neska baxu jotzaile bakarra nintzen, baina horrek ez ninduen kikilduko.

Gogoan dut nire osabak tatuaje bat egin zuenekoa, handik gutxira hil egin zen eta orduan sin egin nuen 18 urte egiterakoan bere tatuajea bezalakoa egingo nuela amak jakin gabe. Horrela tatuaje horrek betiko batuko gaitu, berea, nirea eta gurea izango delako.

Akordaten naz txikitan aititegaz kartajokuan ibiltzen nintzala.

Akordetan naz tzinberagaz txoriak hiltzen nebazala orain lez.

Gogoan dot txakurrak eperdian aginka egin eustan eguna

Akordatzen naz amagaz masustak batzera joaten nintzala amagaz agostuen.

Akordaten naz, lagun baten etxean, kankarru pila bat apurtu genduzala.

Akordaten naz txakur bat neukala eta zaldia... Toni eta Txikita

Gogoan dot ene amagaz catilucho mendira joan ginala eta bertan ganau artean ibili ginala, behi gorriak ziran hareik.

Agoan dot, ikastolan maillu bat ostu ebalu lagun batek, eta gero bion artean ormie zulo luze genduala.

Akordatzen naz perretxikotan, baten basserri ondoko basoan galdu nitzala, batara ta bestera jakin barik nora nindoan.

Gogoratzen dut nire osabaren oiloa 9. pisutik bre buruaz beste egiten zailatu zela

Gogoratzen dut artzainak arrituta geratzen zirela gazta zaharra jaten ikusi keran bi urte baino gutziago nituenean

Akordatzen naz mutil listoenetarikoa nintzela klasean baina orain ez hainbeste.

Akordatzen naz nire aitita zarra zenaren arpia.

Akordatzen naz gafak imini nebazan eguna.

Gogoratzen dot aparatua kendu zidaten egunean egin eustien mina.

Gogoratu naz zelan ezin ditudan baltzak soportatu.

Goratzen dut marikoiei karinorik ez deukietsatiela.

Gogoratzen dut nire lehen etxea, oso polita zen eta han nire lehen hilabeteak igaro nituen.

Gogoratzen dut lehen aldiz gamba bat jan nuenean.

Gogoratzen dut lagun batek lehen porroa eman zidanean.

Gogoratzen dut lagunekin lehen mozkorra hartu nuenean.

Gogoratzen dut nire lehen suspensoa, lehen DBH mailan naturan, Aracely-rekin.

Gogoratzen dut ur-tubo bat esplotatu genuenean lagunak eta ni eta gero ziztu bizian korrika joan ginenean.

Gogoratzen naiz txabola bat egin genuenean eta gure gainera jauzi zitzaigunean.

Gogoan dut “Container” bat apurtu nuenean petardo batekin.

Gogoratzen dut ordu batez ikasten ari nintzenean lehen aldia.

Gogoratzen naiz bizikletan ibiltzen ikasi nuen egunak piztu zitzaidan poza.

Akordatzen naiz gozokizko piruleta erosi zidatenean eta eskuetatik erori eta izan nuen tristura.

Akordatzen naiz Aritzatzu hondartzan uretara salto egin eta igeri egiten ez nekiela konturatu nintzenean.

Gogoratzen naiz txikitan Busturira joaten nintzela familiarekin bazkaltzera eta bertan lehengusuekin jolasten nintzela.

Gogoratzen naiz txirrinduan talako aldapa jaisten nindoala harri bati jo eta erori nintzela.

Akordatzen naiz txikitan amaren krema pote txikia hartu eta ohartu gabe tapoia sudurretik sartu nuela eta galdakanora eraman nindutela sudurretik tapoia atera diezadaten.

Gogoratzen naiz Frantziako kanping batera joan ginela eta anaiak komunera sorbaldan eramaten zidala harri batekin estropezu egin arte, lurretik altzatzean gogoratzen dut sekulalo zauriak geneuzkela. akordatzen naiz aitarekin autoan nindoala eta istripua izan genuela autopistan.

Gogoratzen naiz amonaren etxera joan nintzela eta igogailuan harrapatuta geratu nintzela hamar minutu inguru.

Akordatzen naiz txikitan amarekin Bilbora erosketetan joan nintzenean eta manifestazio bat zegoela, gu korrika irten ginen momento hartan ez nekien zergaitik baina orain konturatzen naiz ertzainek manifestarieri eraso egiten zedela.

Gogoratzen naiz txikitan herriko esku pilota txapelketa irabazi nuenean tanto bategaiti sentitu nuen emozioaz.

Gogoratzen naiz txikitan bizikleta berria opartu zidatenean bizikleta haru eta eman nuen golpeaz eta orduan ia aranasarik hartu ezinik sentitu nuen ikaraz

Esperientzia txarra izan zen futbolera jokatzeko eta jauzi nintzenean burua ireki nuenean sufrita nuen guztia.

Gogoratzen naiz txikitan nire aititerekkin jolasten nuenean zein ondo pastasen nuen.

Esperientzia ona izaten zen lagunekin lamerara futbolera jolasten joaten nintzenean.

Esperientzi ona izan zen txikitan ama eta aita gabe lagun baten etxean lo egin nuenen lehenengo aldiaz.

Gogoratzen nai nola egun batean zinean nengoela txikitan lotan gelditu nintzen eta pelikula ikusteko gogoarekin gelditu nintzen.

Gogoratzen naiz nire aitite hil zenean sentitu nuen tristuraz.

Gogoratzen naiz arraunean nola irabazi genuen bizkaiko txapelketa eta zein ondo pasatu genuen gero tontoarena egiten Bermeotik.

Gogoratzen nai nola DBH 3. mailan nola euskerako klasea andereñoa azaltzen zegoen artean nola geunden ni eta nire lagun batzuk PSParekin pelikula bat ikusten andereñoa konturatu gabe, eta nolako barreak egin genituen.

Gogoratzen dut txikitan anaiak nire arrainak hil zituela.

Akordatzen naiz orain dela pare bat urte etxeko katuak ihes egin zuela.

Gogoratzen dut txikitan nire amak 8 segunduko puzkerra bota zuenean Frantzian, eskiatzen geunden bitartean.

Gogoratzen dut txikitan egunero irtetzen nintzela kalera etxeko lanik ez zegoelako.

Oroitzen naiz teilatu batetik erori nintzenean luzero baten gainean salto egitearren.

Gogoan dut ikastolara joan nintzen lehen eguna.

Akordatzen naiz eskolan besteen takillak apurtu eta ireki egiten nituela.

Oroitzen dut nire lehen suspensoa, teknologiako gelan, azken egunean jarri zidaten negatiboaren ondorioz.

Gogoratzen dut lehen aldiz alu bat dastatu nuenean.

Gogoratzen dut alkoholarekin nire lehenengo ezbeharra izan nuela aratusteetan.

Akordatzen naiz itxita zegoen lantegi batera sartu ginenean eta hor zeuden sofa batzuei sua eman ostean, eskale bat etorri zela eta ia kriston jipioia eman zigula beraren etxea sutan zegoelako.

Gogoan dut lagun bati motorra kendu eta Matxitxakoko farora joan ginenean.

Akordatzen naiz 49cc-ko motor batekin autopistatik joan nintzenean, kotxe danak nire albotik 120 km/h-ra pastasen ziren bitartean.

Akordatzen naiz Irlandara joan nintzen lehen eguna.

Gogoratzen ditut Xabinen etxean hartzen genituen moroiak Beavis and Butthead ikusten bere aitarekin.

Gogoratzen dut 14 urterekin astebururo porruak erretzen nituela.

Akordatzen naiz 13 urterekin U. takilan sartu klase oso bat eta amaieran andereñoari esan genionean takilan zegoela.

Gogoratzen dut lagun batzuen artean, Arrain Azokako jaietan eguerdi+afari-ko txartel batzuk lapurtu genituela karpa batetik. Gero lameran zehar saldu genituen eta egun batzuk geroago ertzainak gure bila egon ziren.

Gogoratzen dut Andoni, gure laguna, bermeoko jaietan 50 urte bitarteko bi emakumerekin etxera joaten ikusi genuenean.

Akordatzen naiz, nire lehen aldia kotxe bat gidatu nebana 10-11 urte nituela, kotxe zahar bat gidatu nuen gasolinaskoa bedartzatik.

Akordatzen naiz nire lehen aldia tiro bat eman nuena eskopetarekin 14 urte nituen urte berri egunean. Zerurantz, esperientzi polita izan zen.

Akordatzen naiz nire lehen aldia motor batean ibili nintzenean 12-13 urte nituela, egun berean lagun batek kriston golpea eman zuen.

Akordatzen naiz nire lehen aldia perretxikotan joan nintzenean 10 urte nituela. 3 otzarakada hongo hartu nituen.

Akordatzen naiz lehen aldia kotxearekin kolpatu nintzenean 13 urte nituela eta nire aitaren 4x4-an nenbilela. Ezin nuenez azeleragailutik hanka kendu postearen kontra joan nintzela.

Akordatzen naiz nire lehen aldia madalenatan itsasontzian joan nintzenan, mareatu egin nintzen, bi metroko olatuekin bueltako bidean.

Gogoratzen dut mangito gabe uger egin nuen lehen aldia, zelako poztazuna, inteligenteago eta indartsuago sentitzen nintzen.

Gogoratzen dut zineman nire lehenengo película ikusi nuenean, gabonetan, ez zitzaidan ezer gustatu, ez nuen ia ezer ikusilo gelditu nintzen.

Gogoratzen dut nire lehen futbol baloia ikutu nuenean, baloia ni baino haundiago zen.

Gogoratzen dut San Mamesera joan nintzen lehen aldia, 7 urte, sinestezina, Bermeo baino haundiagoa zela uste nuen, partidua hutsean amaitu zem, Celtaren aurka.

Gogoratzen dut atezain moduan egin nuen entrenamendu bat, nire entrenamendurik onena, ez zidan ezertarako balio, zeren eta ez nuen jolastu, hurrengo egunean hanka bihurritu nuelako.

Gogoratzen dut hegazkinez egin nuen lehen bidaia, asko gustatu zitzaidan, tripetako koskileo hori, belarriak gortuta.

Gogoratzen dut nire lehen mugikorra, ez zen gauza haundia, baina gustatu zitzaidan.

Gogoratzen dut egin nituen litroak, nire garajea, egin nituen, zelako mozkorra.

Gogoratzen dut nire gurasoen ezkontza, arrak eraman behar nituela, baina nik monetak bakarrik eraman nahi nituen eta azkenean nire helburua lortu nuen.

Gogoratzen dut nire lehenengo 3 urteetan nire amonaren etxean bizitzen nintzela eta txakur bat genuela, urteak igaro zirenean hil egin zen eta egun osoa negarrez egon nintzen.

Gogoratzen dut nire izeko eta osaba gauero nire etxera etortzen zirela, Rolli-Pollie-Ollie telebista saioa ikustera.

Gogoratzen dut, gauero nire aitak ipuin berri bat irakurtzen zidala eta nirekin gelditzen zen ni lo geratu arte.

Gogoratzen dut, nire etxera Asier eta Itsaso etorri zirela lo egitera.  
Gau osoan jolasten igaro genuen.

Gogoratzen dut, nire neba txikia lehen aldia ikusi nuenean. Nire gurasoekin etorri zen eskolara ni bila eta nire gelako ume guztiak nire neba inguratu zuten hura ikusteko.

Gogoratzen dut, Lanzaroten oporretan egon nintzenean, lagun min bat egin nuela, eta oraindik lagun minak gara.

Gogoratzen dut, nire amaren etxean, nire izekoren takoiak, makillajea eta poltsak janzten nituela, heldu izatera jolasteko.

Gogoratzen dut, Lamerako jolaslekuan nire aitarekin dendari izatera jolasten genuela.

Gogoratzen dut, lehenengo dirua pezetak zirela eta nik beti moneta handia eskatzen nuen, baina beti txikia eta erdian zilo batekin ematen zidan.

Gogoan dut, gure eskolan jantokiko bidean esaten genuena: "marratik irten barik".

Gogoan dut, aita ahate hori batekin amaren etxean azaldu zenean.

Gogoan dut, Mundakako amamak prestatzen zituen natilen usaina.

Gogoan dut, amak erosi zidan lehen Barbia, bere ile horiak eta jantzi arrosak txora-txora eginda utzi ninduten.

Gogoan dut, 5.mailan gure lagun kuadrila 6 lagunekoa izatetik 16koa izatera pasatu zen eguna.

Gogoan dut, nire lehengusinarekin txakur beltz handia nire gainera bota zen unea.

Gogoan dut, Olentzero egunean guraso guztiak amaren logelako lehioa irekitzen zutela 00:00etan eta opariak ezkututzen zituztela guk topa genitzan.

Gogoan dut aitak lau gurpleko patin berriekin lehen aldiz patinatzerara eraman nindueanean hartu nuen ipurdiko galanta.

Gogoan dut, amumaren etxean nire lehengusuekin ezkutaketetara jolasten ari ginela, balkoiko lehioarekin eman eta irten zitzaidan turtulo itzela.

Gogoan dut eman zidaten lehen musua.

Gogoan dut goizero leihoa ireki eta beheko harategiko buskentz usain nazkagarriak betetzen zuela nire gela osoa.

Gogoan dut nire nebak matxinsalto bat ekarri zuela etxera maskota bezala eta gauetan ezin lo egin ezinda egoten nintzela bere zaratarekin.

Gogoan dut, Ibizaara joan nintzenean banana izeneko koltxoneta batean montatu eta itsasontzi batek itsasotik abiadura handian eraman ginduenean uretara erori nintzela eta pentsatu nuen ez nintzela irtengo inoiz.

Gogoan dut amonaren etxera joaten nintzen bakoitzean niretzako 4 kroketa izaten zituela prestatuta, munduko hoberenak zirela esaten niolako, eta berak poz pozik egiten zizkidan.

Gogoan dut, egun batean amak arropa berriak ekarri eta egun berean estreinatu nahi nituela eta hotz ikaragarriarekin jarri nituen. "Para lucir hay que sufrir", esan zidan amak.

Gogoan dut nire amonarenera diru bila joan eta atzazkalak margotzen nizkiola.

Gogoan dut, oporretan joan nintzenean, ardo bodegetako gida azalpenak ematen ari zela, denak isilik geundela, nire neba txikiak bota zuen korroskada.

Gogoan dut, nire gurasoek ikas-bidai gabe utzi nindutela, nota txarrengatik.

Gogoan dut lehen hagina jauzi zitzaidan egunean, "Ratoncito Perez" nire logelan nirekin hitz egiten zegoela amestu nuela.

Gogoan ditut birgintasuna galduarazi zidan mutilaren begi berdeak.

Gogoan dut, nire gaur egungo taldearekin izan nuen lehenengo gola, eta oso pozik sentitu nintzela.

Gogoan dut, nire lehen 10a matematikako azterketan, bakarrik 3 pertsonak gainditu genuen.

Gogoan dut txikia nintzenean nire ikastolako klaseetan nire lagunak eta nik boligrafoak lapurtu eta apurtu genituela, beste bati errua egotziz.

Gogoan dut, bizikletan nindoala (oso txikia nintzela) sekulako golpea hartu nuela eta segituan medikuarengana joan ginela.

Gogoan dut, 10 urte nituela, leihoko kristal bat apurtu nuela Mundakako plazan jolasten nengoela ertzaintzak etorri ziren eta oso beldurtuta egon nintzen.

Gogoan dut, nire gurasoek Olentzero ez zela benetakoa esan zidatela eta beraiek zirela, eta erregeen kasuan ere berdina esan zidaten eguna.

Gogoan dut 7 urterekin San Mamesera joan nintzela Athleticek Real Madrilen aurka jokatu zuenean, eta Athleticek irabazi zuela eta oso pozik jarri nintzela.

Gogoan dut, 4 urte nituela ez nekiela uger egiten, eta beraz lurra ukitzen ez nuen tokietan sekulako sustoak izaten nituela.

Gogoan dut, nire lehen ebakuntzan oso beldurtuta egon nintzela eta nire ama gogaitu nuela.

Gogoan dut kaletik joaten nintzenean baldosen karratuan sartu behar nituela oinak bestela erre egingo nintzelakoan, eta zebra bideetan marra zurietatik igaro behar nintzela.

Gogoan dut matematikako azterketa batean 7,5eko nota atera nuela, “cm” ikurra ez jartzeagatik ez nuela 8koa lortu, eta negarrez hasi nintzela.

Gogoan dut egun batean, klasean nengoela lo geratu nintzela oso klase aspergarria zelako.

Gogoan dut nire aitonak ardoa ematen zidala oso txikia nintzela.

Gogoan dut ferriako arrainak hil zirenean negarrez bukatu nuela.

Gogoan dut nire anaiak hozkailu barruko guztia bota zuela eta errua niri egotzi zidala.

Gogoan dut Gabon gauean gurasoak harrapatu nituela zuhaitzpean opariak jartzen.

Gogoan dut atzamarra ebaki eta konortea galdu nuela.

Gogoan dut naturako azterketa erdia egin nuela konturatu gabe atzekaldean zegoela beste zatia, eta 5a atera nuenean negarrez hasi nintzela.

Gogoan dut egun gastroneritisa eduki nuen egunean komunean igaro nuela goiz guztia.

Gogoratzaren dut musika taldearekin Oskorriren kontzertu batera joan eta han nire bufanda berria galdu nuela.

Gogoratzen dut egun euritsu batean eskolako patioan mutil batekin lasterketa egin nuela eta laprast eginda erori eta aurpegian zauria egin nuela.

Gogoratzen dut aratuste egun batean oiloz mozorrotu nintzela eta ez zidala inork ezagutzen eta Lamera osotik jende pilo bat nire atzetik zetorrela niri segika.

Gogoratzen dut mutil bat nire amonaren etxera zetorrela nire bila eta portal batean esertzen ginela “game boy”-ean jolastera.



Gogoratzen dut nire lagun baten zaldiarekin menditik nindoala eta nire laguna ibiltzen zihoala; bat-batean zaldia zoratu egin zen eta galopean hasi zitzaidan, ezin nuen gelditu eta nire laguna oso arduratuta zegoen, baina azkenean lortu nuen gelditzea.

Gogoratzen dut nire lehen txoria nire nebak hil zuela palomita bat eman ziolako eta gero nire lehengusuak beste bat eman zidan.

Gogoratzen dut Lesakan nire neba eta lehengusuekin zapaburuak hartzen genituela eta egun batean erre kara erori nintzela.

Gogoratzen dut nire lagun guztiak lagun baten etxera joan ginela eta piszinako ohol zati bat lekuz kanpo zegoela zapaldu eta erropa eta guzti erori nintzen. Lagun batek grabatu egin zuen eta denok egiten dugu barre bideo ikusten dugun bakoitzean.

Gogoratzen dut aldakako kartilagoa desplazatu egin zitzaidala eta ezin nuela ibili, nire osabak medikuarengana eraman eta hark esan zidan ez zela ezer, hurrengo egunean berriro eraman ninduen medikuarengana eta ebakuntza egin zidaten.

Gogoratzen dut eskolan “Txin-txin, diruaren hotsa” antzerkia egin genuela eta ni itzala nintzela.

Oroitzen naiz nire amonaren etxeko katuarekin jolasten ibili nintzela kortina atzean, eta hark arramazka egin zidanean aitona ardoa bota zidala zaurian.

Oroitzen naiz, ezkutaketan jolasten nuela nire aitarekin, etxeko ate atzean ezkutatuz.

Oroitzen naiz nire lehengusuaren patinetea hartu eta erori egin nintzela. Medikua benda jarri zidan, hatzamar txikian.

Oroitzen naiz nire lagunekin Bilboko zinemara joan nintzela, pelikulak espero genuena baino gehiago iraun zuen eta autobusa galdu genuen.

Oroitzen naiz Lameran nengoela nire gurasoak taberna batera sartu eta ez nintzela konturatu. Ez nituenez ikusten, negarrez hasi nintzen eta ni baino nagusiago ziren neska batzuk ni lasaitzen aritu ziren.

Oroitzen naiz eskolara nindoala nire ama gelditu egin eta nik aurrera jarraitu nuela eta nire aureko andrea nire ama zela pentsatuz eskutik heldu nuela.

Oroitzen naiz nire lehen jaunartzean elizako aldarera nindoala gona zapaldu eta ia erori egin nintzela.

Oroitzen naiz Cabarcenora joan nintzela gurasoekin eta pultsera urdin bat oparitu zidatela, oraindik gordetzen dudana.

Oroitzen naiz gimnasiako aldageletan tontoarena egiten genbiltzala laprast egin eta erori egin nintzela prakak bustiz.

Oroitzen naiz txakur batek nire gainera salto egin eta ogitartekoa kendu zidala.

Akordatzen naiz neba-arrebak logela batean elkartzen ginela eta kanping antzeko bat sortzen genuela manta eta aulkiekin. Bertan igarotzen genituen orduak argiak itzalita, linterna baten argiarekin istorio harrigarriak elkarrekin konpartitzen.

Domeka guztietan esku-pilotara jolastera Sukarrietako frontoira joaten ginela oroitzen naiz. Eta azkenean atzeko aldean bakarrik aritzen nintzela nire anaiak baino txarragoa nintzelako jokoan.

Bermeon uholdeak egon ziren egunaz gogoratzen naiz. Amonak besotik gogor helduta eramaten ninduen Bermeoko Lameratik, ura ia gerriraino heltzen zitzaidan bitartean.

Akordatzen naiz elurra erortzen ikusi nuen lehen aldia, baita amari esan nion hitzetaz “ama, bitu zemat azukara” eta amak barre egin zidala. Orduan lurretik hartu nuen pixka bat eta ahora eraman nuen, zapore gozo hori sentituko nuelakoan. Aurpegi txarrez erantzun nion amari: “Ama! Garratz dau!”.

Aiton-amonengana bisitan joaten nintzen egunetaz akordatzen naiz, eta aitona beti gogoratzen zidanaz ere: “Kontuz kotxikaz”, eta nik beti gogo gutxirekin eratzuten nion “Baaaaaaii... atxitxe!”

Jende aurrean abestu nuen lehen aldiaz akordatzen naiz. Eztarria lehor nuela eta oso urduri nengoela. Abesten hasi eta ahots gabe gelditu nintzen eta inoiz lotsagarriago sentitu nintzen orduan “Parkatu, ostabere hasiko naiz” esan nuen eta berriro hasi nintzen.

Maitemindu nintzen lehen aldia gogoratzen dut. Mendi berde baten geundela ilargirik gabe eta izar guztiak inoiz baino disdiratsuago gure aurpegiak isladatzen zutelarik. Udako gau bero batean lurrean etzanda olatuek itsaslabarrean jotzean egiten zuten soinua miretsiz.

Etxera heldu, eta amari egin nion galdera batez oroitzen naiz. Lehengusuak izterra apurtuta zuela pentsatzen nuela gogoan dut. Eta gurasoak bisitan joaten zirela: “Ama, zer? Zelan dau Urko?” eta berak erantzun zidanak barrutik hautsi ninduela “ Laztana, gaur goizien hildxe, ezu jakin?” Eta ni ez nintzela joan bisitatzera gogoratzen dut baita, eta inpotentzia itzela nuela.

Oroitzen naiz txikia nintzenean, gauak egon nintzela lo egin barik belarriko mina nuelako.

Oroitzen naiz nire aitak bizikletari kendu zioela 3. gorpila eta irakatsi ninduela ibiltzen bizikletaz.

Gogoan dut petardoekin nengoela jolasten eta beroarekin patrikan eztanda egin zidatela, eta izterra erre nuela.

Gogoratzen dut nire lagunik onena txikitatik Unai eta Xabier zirela.

Gogoan dut Bermeoko modelo lehiaketa irabazi nuenean nire ekipokoek eta denek animatu nindutela.

Oroitzen naiz lehengo aldiz surf egitera joan nintzenen, nire lagunik onenekin, Danirekin.

Gogoan dut surf egiten nengoela kolpe bat emon ondoren nire taularen erdian izugarritzko zuloa zegoela.

Oroitzen naiz atezain nengoela aurrelariak ostiko bat eman zidala burua eta lau puntu eman zizkidatela.

Gogoan dut lehengo aldiz ikusi nuenean nire motorra, eta oraindik harrituta geratzen naiz ikustean.

Gogoan dut lehengoko aldiz nire neskalaguna ikustean aho zabalik geratu nintzela.

Gogoan dut nire etxea hutsik inongo altzaririk gabe. Beste familia baten zain.

Gogoan dut eskiatzera joan nintzen lehenengo aldiaz, hiru urte nituela. Amari harrituta esan nion: “Ama, hemen beti dira gabonak!”

Gogoan dut goizaldean iratzarri eta Andeetan, 3000 metrora, egun sentia ikusi nuen uneaz. Eguzkia laino eta mendi artetik pixkanaka urteten hasi zen, zerua naranja arrosa kolorekoa. Denbora geldi zezan nahi nuen.

Gogoan dut Euskalduna Jauregian 101 Dalmatas antzerkia ikutera joan nintzenean eta eszenatokira igoarazi nindutela eta txakurra lapurtzea leporatu zidatela.

Gogoan dut Marik kontatzen zidan istorioa. Nire etxetik ikusten zen etxea sorgintuta zegoela sinestarazi zidan. Ezin lorik egin egin nintzen aste betez.

Gogoan dut Timanfaiaren egun nintzen eguna. Bero itzela zegoen, lur bolkanikotik geiserrak ikusi nituenean.

Gogoan dut amonaren etxera joaten nintzen egunetan eta eskatzen zegoen pudin usainaz.

Gogoan dut barizelaren lehenengo bikorrak urten zitzaizkidan egunaz. Min handia nuen.

Gogoan dut amak esnedun hagina hari batekin kendu zidan egunaz, hura bai mina.

Akordatzen naiz txikitan domekaro mendira joaten ginenean, eta ogitarteko batzuekin eguna igarotzen genuenean mendi batetik bestera gelditu gabe.

Akordatzen naiz nire aitita amonek bi urte baino ez nituela nola diskutitzen zuten atun lata batzuegatik, ez dut nire aitita hartaz oroitzapen gehiagorik.

Akordatzen naiz ile-apaindegira joatea gustuko ez nuela, eta behin nik neuk ebaki nuela ilea.

Akordatzen naiz Mundakako hondartzan bainatu nintzela Bilboko lehengusuekin.

Akordatzen naiz nire gurasoek zigortu nindutela arrokekin uretara sartzeagatik.

Akordatzen naiz talan egiten nituen barbakoak, naiz eta txikia izan oso berandu arte gelditzen ginen jolasean.

Akordatzen naiz ikastolako garaiekin, nola urtez urte hazten nintzen txikitako laguneren ondoan eta nola tratatu gintuzten familia baten moduan.

Akordatzen naiz nire lehen kontzertua, Bermeoko kafe antzokia estrenatu zenean eta Gariren kontzertua zela, eta ez nekiela bere kantarik.

Akordatzen naiz nire eskubaloiko lehen partidua, oso txikiak ginen eta askogatik galdu genuen.

Akordatzen naiz Euskadiko Kampeonatoan nola geratu ginen bigarren Gipuzkoako selekzioaren atzetik eta nola Bizkaiko finala galdu genuela Urdanetaren aurka. Akordatzen naiz, beno ez, ez naiz akordatzen oraindik 7 urtetan ez baitut ezer irabazi kirol honetan.

Akordatzen naiz txikitan ziztu bizian ateratzen ginenean jolastordura, ahalik eta denbora gehien futboleant aritzeko.

Akordatzen naiz nire lagun batzuk janaria ematen zidatela egunero, ez zuten ikastolako janaria gustuko.

Gogoan dut hiru lau urterekin, ikastolako autobusean lo gelditu nintzela eta ez nintzela irten autobusetik ikastolara heltzean.

Akordatzen naiz txikitan lehenengo aldiz ibili nintzenean motor txiki batean aitak arin ez ibiltzeko esaten zidan bitartean.

Oroitzen dut L.H.3an edo, andereñoak notak jartzerakoan hanka sartu zuela neurketa idazterakoan eta berriro hasi behar zela notak jartzen.

Akordatzen naiz oraindik umea nintzela, parkean egoten nintzela lagunekin gurasoek mugikorrera deitu arte etxera joateko ordua zela esanez.

Gogoan dut domeka guztietan nire aitita amonekin baserrian iluntzera arte geratzen nintzela.

Oroitzen dut autoan nindoala erraz zorabiatzen nintzela distantzia laburretan.

Akordatzen naiz, ikastolako maisu batek, euli bat hil zuela arkatzarekin eulia hegaz zegoen bitartean.

Gogoan dut, ikastolako jolas orduetan beti futboleant jolasten genuela nagusiek futbol zelaia kendu bitartean.

Oroitzen dut Talan bizi nintzenean, ez nuela gogorik izaten bost solairu igotzeko eskaileretatik ez genuelako igogailurik.

Akordatzen naiz gaztelerako andereñoarekin ez genuela ezer egiten klasean eta orain garai haietan ezer ez ikasi izana ordaintzen ari naizela institutuan.

Akordatzen naiz eskuko atzamarra ebaki nuela atea zarratzean; gaur egun zati hura falta zait.

Akordatzen naiz, lehenengo aldiz bizikletan ibili nintzenean, nire aitak heltzen ninduela eta aldatzean behera askatu nindueanean ez nintzela konturatu bakarrik ari nintzela jaisten.

Akordatzen naiz mutil batekin lehenengoko aldiz maitemindu nintzenean hondartzan egon ginela; futbolera jolasteko eskatu nion eta berak baietz esanez joan ginen, geroago konturatu nintzen ez zela nire laguna, sentimendu desberdin bat sentitzen nuela berekiko.

Akordatzen naiz aurreneko aldiz neba txikia hartu nuenean.

Akordatzen naiz, nire beste neba txikia hartu nuenean eta sentimendu desberdina zen nire lehenengo neba hartuz 5 urte nituela eta bigarren neba hartuz 13 urterekin.

Akordatzen naiz argazki bat ateratzera joan ginela eta prakak apurtu zitzaizkidan erditik.

Akordatzen naiz nire lehenengo panpina hipopotamo bat izan zela.

Akordatzen naiz oparitu zidaten lehenengo liburuaz, Pirritx eta Porrotxena.

Akordatzen naiz marginatu egin nindutela eta bakarrik egon nintzela kurtso guztian inork ez zuelako nirekin hitz egin nahi.

Akordatzen naiz futboleko baloia ukitu nuenean, 3 urtekin.

Akordatzen naiz “dodotiak” kentzen nituela eta izkina batera joaten nintzela kaka egitera.

Akordatzen naiz arreaba jaio zenean eskutatik jauzi zitzaizkidan, eta ondorengo errieta ere bai.

Akordatzen naiz amak zaplastekoa eman zidala platera janariz bete lurrera bota nuelako.

Akordatzen naiz domeketan aitak arrautzaren zuria gorringotik separatzen zuela eta gero batidorarekin denak “a punto de nieve” uzten zituela.

Akordatzen naiz, neba jaio zenean, ni sei urte nituen, ez ginela ondo konpontzen arreba eta borrokan genbintzala beti.

Akordatzen naiz, nire beste neba jaio zenean, ni hamar urte nituen, hiltzeko zorian zegoela ordu bete gersatzen zion eta operatu egin zutela.

Akordatzen naiz amonarekin joaten nintzela oporretan eta nire aitxixte bisitatzen joaten ginela hilerrira.

Akordatzen naiz, hamar urte nituela gelako neskek “matrimatxo” deitzen zidatenla eta ni konforme nengoela.

Akordatzen naiz amak esan zidala ezin zituela lau ume zaindu eta barnetegian baten sartu gintuela.

Akordatzen naiz, hemen Bermeon bizitzen, nire ametseko mutila ezagutu nuela eta berarekin maitamindu nintzen eta oraindik berarekin nago.

Gogoan dut txikitan futbolari profesional batekin zelaira irten nuen eguna, Anton Karmonarekin izan zen, Alaveseko jokalaria zelarik.

Gogoan dut bost urterekin, orain igo ezin dudan aldapa bat, bost martxatako txirrinduarekin igotzen nuela eta Aritzatxura joaten nintzen bakoitzean igo behar nuela.

Gogoan dut nola gure lehen mozkorretariko batean, gure lagun bat errekarara erori zen “limonccelo” botila bat edan ondoren.

Gogoan dut lagun bati futboleko entrenamendu batean orkatila apurtu niola eta horren ondorioz ezin izan zuela Athletic-erako probetara aurkeztu.

Gogoan dut “alevin” kategorian nengoela, Athletic-ekin Biarritzen irabazi genuen futbol txapelketa. Gainera txapelketako finala, Athletic A – Athletic B izan zela.

Gogoan dut Cirque Du Soleil-en Alegria espektakulua ikusten joan nintzenean gelditu zitzaidan babo aurpegia, espektakulu ikusgarriaren ondorioz.

Gogoan dut Pedernales-eko jaietara joan ginen lehen uda. Nire lagunek eta nik, Pedernales-eko hondartzan, erdi-biluzik eta bustita amaitu genuen gaua.

Gogoan dut diskotekara joan nintzen lehenengo aldia, jende gehiegi zegoen eta beldurra nuen baina azkenean nire beste familia bihurtu ziren.

Akordatzen naiz sexu orala praktikatu nuen lehenengo aldia, traumatikoa izan zen baina barregarria, errepikatu egin nahi dut.

Gogoan dut lehenengo aldiz bizikletan ibili nintzenean, nire aitaren laguntzaz, a ze nolako ostia hartu nuen.

Akordatzen naiz nire lehenengoko porroa erre nuenean nire lagunak moratuarekin. Beste mundu batera bidaiatu nuen.

Gogoan dut txikitan pingüino batek ozka egin zidanean, orain ikara diet.

Akordatzen naiz nire lehenengoko gaupasaz, izugarritzako resakaz itzuli nintzen etxera, eta nire gurasoak barrezka hartu zidaten etxean.

Gogoan dut nire lagunaren lokalan sartu nintzen lehenengo eguna, hor ezagutu nuen nire ezinezko amodioa.

Akordatzen naiz lehenengoko aldiz perreatu nuenean, ni eta nire lagunok oso edanda geuden eta a ze nolako kalentoia denok denori perreatzen.

Akordatzen naiz reggaetoia nazkagarria iruditzen zitzaidala, orain ezin naiz bizi musika hau entzun barik.